



II. ATALA ERRAMUN BAXOKEN OMENEZKO AITORTZAK

>>>

2

ERRAMUN BAXOK GOGOAN ESKER ONEZ HABETIK

Pello Esnal

HABE (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea)

1981eko udazkena. HABEren lehen urratsak. Dena eginkizun dago. HABEko lankideok euskara irakasten arituak gara. Asko edo gutxi, irakurria dugu zerbait —gehiegi ere ez— hizkuntzen irakaskuntzaz. Bakarren batzuek artikuluren bat ere idatzia badugu euskararen didaktikaz, eta material didaktikoa sortua ere bai. Baina dena eginkizun genuen. Eskerrak gazteak ginen.

Pixkana-pixkana, HABE eraikitzen goaz. Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea sendotu eta erakundetu beharra dago. Alderdi administratiboa finkatu eta zehaztu. Alderdi didaktikoa oinarritu, landu eta garatu. Irakasleak prestatu eta gaitu eta profesional egin. Dena eginkizun genuen. Baina gazteak ginen.

Duela hogeita zazpi urte, gazteak ginen —gaur baino gazteago—, mundua jateko prest geunden —gaur gutxiagorekin ere hartzen dugu etsia, nahiz eta ausardiarik ez zaigun falta—, lizentziatu ginen batzuk —gaur parra-parra dabilta lizentziatuak— eta Pedagogian lizentziatuen bat ere bazen gure artean —gaur, oraindik bakarren batek ikasten ditu Pedagogia eta Didaktika—.

Egoera hartan, duela hogeita zazpi urte, gauza asko behar genituen, ausardia indar bihurtzeko eta indarrak bideratzeko eta jakin-mina asetze-

ko... Ezker eta eskuin begiratzen genuen eta, batzuetan —nahi baino gehiagotan—, desertuan galduta geundela iruditzen zitzaigun. Gustura hartuko genukeen nondik jo esango zigukeen norbait, zer irakurri aholkatuko zigukeen gidaririk, zer egin erakutsiko zigukeen maisurik. Hitz batean, gu baino zaharragoren —zuhurragoren— bat behar genuen, nahiz eta zaharrek halako erreparoa ematen ziguten. Gazteak izan, nonbait.

Horrela izan genuen Erramun Baxoken berri. Iparraldekoa omen zen. Lizentziatua ez ezik, doktore ere bai. Eta irakasle, non eta Kanadan, gainera. Eta Erramun Baxok hura lankide izango genuen HABEn, alajaina.

Eta Erramun Baxok etorri zitzaigun HABEra; oker ez banabil, 1982ko hasiera aldera. Berehala ohartu ginen, bai, gu baino jantziagoa zela giza-seme heldu eta ospetsu hura. Eskertu genuen hala izatea. Hari eransten genizkion, gupida handirik gabe, inork nahi ez —edo burutu ezin— zituen lanak: dela hitzaldi bat egitea, dela ikastaro bat ematea. Gainera, ondo zetorkigun HABEren irudia indartzeko ere, guztiaren beharrea geunden-eta.

Uste dut sei hilabete egin zituela Erramunek gurekin, lehenaldi hartan, Kanadara beste sei hilabetetarako itzuli aurretik. Izan zuen zereginik franko.

Besteak beste, berak eman zigun hitzaldia, denok —talde didaktiko-partaide, HABE Euskaltegietako irakasle eta hiru lehen Udal Euskaltegietako irakasle— Hondarribian egun pare bateko jardunaldiak egin genituenean, 1982ko otsailean.

Bestalde, Didaktikari buruzko ikastaro bat prestatu zuen Donostiako Irakasle Eskolak, HABEren babesarekin. Ikastaroan, Gabino Muruak jardun zuen euskal gramatikaz, Joxe Antonio Gesalaga “Zaldubi”k ikusentzunezkoen erabileraz, eta Erramunek glotodidaktikaz.

Udan, berriz, beste ikastaro bat eman zuen HABEk, Zestean, hurrengo ikasturtean Udal Euskaltegietako irakasle izango zirenak prestatzeko eta gaitzeko. Eta han ere Erramunek hartu zuen bere gain zamarik astunena: berriro ere didaktika erakustea.

Eta Kanadara joan zen sei hilabetetarako. Eta hori ere ondo baino hobeto etorri zitzaigun gutako batzuei. Kanadara joan baikin, 1982ko udazkenean, hango berri ikusi eta ikastera. Eta Kanadan, Quebecen ibili ginen bitartean, Erramun izan genuen gidari.

Berehala, ZUTABE aldizkaria sortu genuen (1983ko hasieran plaza-ratu zen lehen lauhilabetekaria: urtarrila-apirila), eta Erramun Baxok han genuen aldizkariaren zuzendaritza-batzordean.

Berriro ere oker ez banabil, beste sei hilabete egin zituen Erramunek HABEn, Kanadatik itzulita. Ja, ZUTABEren hirugarren zenbakian (1983: iraila-abendua), ez da bere izena ageri zuzendaritza-batzordean.

Beraz, sei hilabeteko bi alditan izango genuen Baxok HABEn lankide. Lankide, eta lankide baino gehiago ere bai.

Gaur, haren idazlanak-eta bilatzen hasita, ZUTABEren lehen zenba-

*Horrela izan genuen
Erramun Baxoken berri.
Iparraldekoa omen zen.
Lizentziatua ez ezik,
doktore ere bai. Eta
irakasle, non eta
Kanadan, gainera. Eta
Erramun Baxok hura
lankide izango genuen
HABEn, alajaina.*

*Besteak beste, berak eman
zigun hitzaldia, denok
—talde didaktikoko
partaide, HABE
Euskaltegietako irakasle
eta hiru lehen Udal
Euskaltegietako irakasle—
Hondarribian egun pare
bateko jardunaldiak egin
genituenean, 1982ko
otsailean.*

Berehala, ZUTABE aldizkaria sortu genuen (1983ko hasieran plazaratu zen lehen lauhilabetekaria: urtarrila-apirila), eta Erramun Baxok han genuen aldizkariaren zuzendaritza-batzordean.

“Euskal Herriko mapa psikologikoa” dio izenburuak. Orduko egiak! Eta gaurkoak ere bai, ordukoak bezain gordin, nahiz eta hogeita sei urte joanak izan eta orain pasaportetik gabe ibil gaitzkeen batetik bestera.

kian ditugu bi: “Elebitasuna Canadian” eta “Canadako elebiduntze-programa”. Bigarren zenbakian, berriz, bi libururen erreseina bana dator. Moirand-ena da lehena: “Enseigner à communiquer en langues étrangères”; eta Trim eta lankideena, bigarrena: “Programmes ‘Langues Vivantes’ 1971-1981”.

Bada Erramunen beste artikulu bat, ordea, ZUTABEko lan horiek baino gehiagotan etorri ohi zaidana gogora. HABE aldizkariaren 6. zenbakian dator, Enrike Larrarte trebearen marrazki bana hornigarri. Hortxe azaldu zituen Baxokek nola ikusten dugun Hegoaldeko euskaldunok Iparraldea eta, aldi berean, nola Iparraldekoek Hegoaldea: bakoitzak beste aldekoa benetan dena baino askoz ere handiago eta urrunagoko. “Euskal Herriko mapa psikologikoa” dio izenburuak. Orduko egiak! Eta gaurkoak ere bai, ordukoak bezain gordin, nahiz eta hogeita sei urte joanak izan eta orain pasaportetik gabe ibil gaitzkeen batetik bestera.

Artikulu horietan, dena den, zerbaiten falta sumatzen dut gaur: Erramunen beraren euskararena. Jose Lizarralde gehiegi orraztuko zituen Erramunen lanak.

Baina, Erramunen artikulu horiek ez ezik, bi argazki ere baditut orain begien aurrean. Bata HABEren 7. zenbakikoa da (1982ko ekainekoa). Hor ageri da, hain zuzen, Donostiako Irakasle Eskolan, Didaktikari buruzko ikastaroan ibilitako ikasle-taldea, tartean direla Gabino Murua eta “Zaldubi” ere, beste zenbait aurpegi ezagunekin batera. Erramun falta da. Bestea 10. zenbakiko argazkia da. Atzealdean, Quebec-eko Laval Unibertsitatea ikusten da; eta lehen planoan, oinak dioen moduan, “Jon Esnal (EAJ-ko diputatua), Joan Migel Gutierrez, W.F. Mackey (Quebec-eko ‘Centre International de recherche sur le bilinguisme’ delakoaren sortzailea), Jean Denis Gendron (Quebec-eko ‘Centre International de recherche sur le bilinguisme’ko zuzendaria), Joxe Manuel Odriozola (LAIA-ko diputatua), Elixabete Garmendia (Gipuzkoako Diputazioko Euskararen Zerbitzuko lankidea), Pello Esnal eta Juan Joxe Zubimendi (EE-ko diputatua)”. Berrito ere, Erramun falta. Baina alboan dator argibidea: Erramunek berak atera zuen argazkia. Askotan, albistea ez da zer edo nor ageri den argazkian, baizik eta zer edo nor ez den ageri.

Hala ere, artikulu eta argazki guztiak baino arrasto handiagoa utzi zuen Erramunek gurean.

Askotan etorri ohi zait umetako pasadizo bat gogora. Behin behar eta, festak ziren Andoainen: Santa Kruz festak. Eta apaiz ezagun bat ekarri zuten Santa Kruz ermitara, mezatan sermoia egitera. Aitak, mezatan izan eta etxeratu zenean, bota zigun:

—Ederra gaurko sermoia!

Eta nik:

—Zer esan du, ba?

Aitak ez zuen erantzuten jakin.

Erramun Baxoken hitzaldiekin-eta, antzeko zerbait gertatzen zitzai-

gun gazteoi: ederrak iruditzen zitzaizkigun, baina gero ez genekien azaltzen zer esan zuen hark.

Eta, hala ere, gaur oraindik gogoan ditugu hitzaldi haietako hitz batzuk. Hitz solteak dira. “Pragmatika”, “hurbilketa komunikatiboa” eta horrelakoak. Orduan guretzat (ia) berriak ziren. Apurka-apurka egin dute beren habia gugan, gero eta esanahiz beteago, gero eta eragileago.

Apurka-apurka ohartu gara, izan ere, Erramunen hitz haiek galderak zirela, baina ez galdera moduan eginak. Benetako galderak horrela egin behar direla: galdera-molderik eta galdera-doinurik gabe. Benetako galderak ez direla zuzenean egiten, zeharka iradokiz baizik. Horrela soilik direla galderak eragile. Galderek ez dutela erasoka bultzatu behar, ez gizakia bakarka ataka estuan ipiniz eta, are gutxiago, talde osoari erasanez, kanoikadaka. Bakoitzak egin behar duela bere bidea, pausoak bere borondatez emanez. Eta guk ere, galdera-egileok, harekin batera egin behar dugula bidea, gu ere bidegile, guk egindako galderak guretzat ere galdera izaki. Dena galdera bihurtzea dela gizakiaren goiburu nagusia, eta galderen ildoan bidea urratu eta ibiltzea.

Horiek, ordea, pixkana-pixkana ikasten dira, urteen joanean. Gazteak, berriz, erantzunak behar ditu eta, horiek batera, bidezidorrak eta bideziurrak, guk orduan bezala.

Gaur, hogeita zazpi / hogeita bost urte geroago, laurogei urte betetzen ditu Erramun Baxok. Eta, kontuak ateratzen hasita, ohartzen gara orduan, HABEra etorri zenean, berrogeita hamahiru izango zituela; hau da, gutako batzuek gaur ditugun baino gutxiago. Eta halako hotzikara eta zirrara sortzen zaigu barru-barrutik. Eta halako kezka ere bai: ba ote gara geure ondoren datozenentzat hura gurekin izan zen bezalako maisu?

Zorionak, Erramun. Eta esker mila, erakutsi zenigunagatik. Benetako maisuak erakutsi egiten baitu, eta ez irakatsi.■

Erramun Baxoken hitzaldiekin-eta, antzeko zerbait gertatzen zitzaigun gazteoi: ederrak iruditzen zitzaizkigun, baina gero ez genekien azaltzen zer esan zuen hark.

Eta, hala ere, gaur oraindik gogoan ditugu hitzaldi haietako hitz batzuk. Hitz solteak dira. “Pragmatika”, “hurbilketa komunikatiboa” eta horrelakoak. Orduan guretzat (ia) berriak ziren. Apurka-apurka egin dute beren habia gugan, gero eta esanahiz beteago, gero eta eragileago.